

Banaketa eta komunikazio kanalak

Banaketa

Alde batetik, Bolondresak ezinbestekoak izango dira gure ideia aurrera atera ahal izateko. Hori kontuan izanda, haiengana iristeko gure tresna nagusia web orrialdea izango da. Bertan, antolatzen ditugun ekintzetan izena emateko aukera izango dute formulario baten bitartez. Formulario horretan, haien izena, eskuragarritasuna eta lehentasunak bezalako informazioa eskatuko dugu. Horrez gain, belaunaldi berrien artean ezagutzera emateko gure sare sozialak erabiliko ditugu.

Beste alde batetik, erakundeei dagokionez, (udalak, aldundiak, eusko jaurlaritza, enpresak edo ikastetxeak...) haiengana hurbilduko gara, gure proiektua azaltzeko eta saltzeko. Honetarako bilera presentzialak eta birtualak antolatuko ditugu erakunde bakoitzeko ordezkariekin, non gure proiektuaren helburua eta eragina azalduko dugun. Ildo berean, gure taldeko pertsona batek proiektuari buruzko informazio zehatza daukaten aurkezpenak egingo ditu, gure bezeroek ahalik eta argiren eukiteko gure ideia.

Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez, hainbat baliabide izango ditugu bezeroek eguneratuta egon daitezen.

Alde batetik, telefono linea bat izango dogu zabalik, kezka, zalantza edo iradokizunen bat daukaten boluntarioak edo bezeroak berehalako laguntza euki dezaten.

Beste alde batetik, posta elektronikoa erabiliko dugu, boluntarioei informazio-buletinak bidaltzeko. Bertan gure ekintzen, lorpenei eta hurrengo ekitaldiei buruzko informazioa jasoko dute.

Jarraitzeko, belaunaldi berriek gure berrikuntzen berri izan dezaten, sare sozialak erabiliko ditugu (instagram, tiktok...).

Ildo berean, komunikazio fisikoko estrategia bat ezarriko dugu teknologiara ohitutak ez daudenen parte hartzea bermatzeko. Esate baterako, kartelak ipiniko ditugu jarduerak egingo ditugun herrietako leku ezagunetan, hala nola parkeetan edo ikastoletan. Kartel horiek zabor bilketa-ekintzen datei eta lekuei buruzko informazioa edukiko dituzte.

Azkenik, publizitate-kanpainak egingo ditugu, bai hedabide tradizionaletan zein digitaletan. Kanpaina horiek boluntarioen parte-hartzearen garrantzia eta gure ekintzek ingurumenean duten eragin positiboa nabarmentzeko diseinatuta egongo dira. Honen helburua ahalik eta pertsona gehiagoetara iristea da.